

SUEÑO DE JABALIS

El crepúsculo sabe a invierno. Plata siniestra. /
Humedad. Por fin blanqueado el milésimo copo de
nieve / a lomos de caballo. / Me ha podido la tibieza
de la chimenea y me ha tumbado / en el colchón
del suelo. Noche gualdinegra. / Ambar el mundo
del espacio de mi primer sueño. / Vienen en manada,
adornadas de luna fría sus pieles / lustrales,
hundidos en tierra sus morros / queriendo robarle el
núcleo y la esencia de la vida. / Muchos y a una. /
Desde la ventanilla trasera de la borda quiero apartar /
las nubes con mi mano desnuda, ansiando encontrar /
el mundo que jamás hubo más allá de los copos blancos. /
Se me están acercando. Los tengo encima. / Bum. Los
ha matado la explosión de mi corazón, / matado por un
momento -único éxito vital del perdedor- / rojo bermellón
sucio la era del mundo del segundo sueño. / La nieve le
ha robado a la sangre el brillo de la púrpura / y la luna
me ha deslizado de nuevo los antiguos ojos opacos de los
jabalis / -vivos ahora por el rencor dolorido- / como en
los caminos encolados de los miedos de la adolescencia.
/ Me atacan. Me desnudan de seguridades. / Son como
golpes de otoño en eco sus rugidos contra el silencio lejano.
/ No puedo ahuyentarlos ni templar la nieve con la roja
suciedad brillante. / La manada de los hijos morenos de
la argoma me tragará / como el helecho el secreto del
joven amor solitario de verano. / Luego el abismo. / El
eco sonoro de las palabras impronunciadas. / Aullido de
asesinos saciados. / Vacío negro, negro, negro, / espacio
ámbar tibio del comienzo / otra vez, hermanado a la
angustia del sudor, / el amanecer nevado, apagado,
apagado, apagado / el guiño del hogar, acallado,
acallado, acallado / el baile del dúo ocre rojizo.

BASURDE - AMETSA

Negu usaina du arrastiriak. Zilar iluna.
Hezedura. Zaldien bizkarreko milagarren elur maluta
azkenik zuritua.
Supazterreko epelerak bentzutu nau eta etzanerazi
lurreko koltxoian. Hori-beltza da gaua.
Anbar nire lehen loaren espazioko mundua.
Saldoan datoz, ilargi hotzez hornitunik beren larru iletsu
lustralak, lurrari bizitzaren muina eta esentzia
lapurtu nahiz, erdi hobiratuak muturrak.
Asko dira eta batera datoz.
Bordaren ateko leihatilatik hodeiak apartatu nahi ditut
nire esku bilutsez, elur malutetatik haruntza
inoiz egon ez den mundua aurkitzeko irriz.
Hurbiltzen ari zaizkit. Gainean ditut.
Buuumm!. Nire bihotzaren eztandak akabatu ditu,
une labur batez akabatu -galtzailearen bizitzako arrakasta
bakarra-
gorrimin paprika zikina bigarren loaren munduaren ataria.
Elurrak hostu dio odolari purpuraren diztira
eta ilargiak lerratu dizkit ostera basurdeen aintzinako
begi opakoak
-minaren amorruez bizirik orain-
nerabazaroko beldur adolezenteetako bide lekadatsuetan be-
/zala.
Erasotu egiten naute. Ziurtasunetaz erauzi.
Udazkenaren kolpe oihartzunduak dira heuren isiltasun
urrutiaren aurkako marruak.
Ezin ditut uxatu. Ezin zikinkeri gorri diztiratsuz epeldu
elurra.
Iratzeek mutil gaztearen maitasun bakartiaren udako
sekretua bezala irentsiko nau otaloreen haur
beltzaran-nabarren saldoak.
Gero leizea datorkit.
Ahozkatu egingo ditudan hitzen oihartzun ozena.
Erahile asetuen ulua.
Hutsaldi beltza, beltza, beltza,
hasierako espazio anbar epela
ostera eta izerdiaren hotzikararekin batera
ugunalba elurtua, itzalia, itzalia, itzalia
supazterraren keinua, isildua, isildua, isildua
bikote hori-gorrien dantza.

Patxi Ezkiaga